

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3035

AGINDUA, 2024ko ekainaren 12koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Gipuzkoako Zuzendariordetzan Auzitegi Klinikako zerbitzuburu lanpostua betetzeko berariazko merezimendu-lehiaketarako.

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 532. eta 533. artikuluetan eta Justizia Administrazioiko Funtzionarioen Sarbiderako, Lanpostu Hornikuntzarako eta Lanbide Sustapenerako Arautegia onartu zuen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz, berariazko merezimendu-lehiaketa iragartzen da Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Gipuzkoako Zuzendariordetzan Auzitegi Klinikako zerbitzuburu lanpostua betetzeko.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Gipuzkoako Zuzendariordetzan Auzitegi Klinikako zerbitzuburu lanpostu huts bereizia betetzea, berariazko merezimendu-lehiaketaren bidez. Lanpostu hori I. eranskinean («Lanpostuen zerrenda») dago jasota.

2. artikulua.– Parte hartzeko betekizunak.

1.– Betekizun orokorrak:

Auzitegiko Medikuen Kidegoko karrerako funtzionarioek parte hartu ahal izango dute, destinoa edozein lurralde-eremutan dutela ere, baldin eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean deialdi honetan ezarritako baldintza orokorrak eta betekizunak betetzen badituzte eta lehiaketaren behin betiko ebazpena eman arte mantentzen badituzte.

Zerbitzu aktiboko egoeran dauden funtzionarioek egoera horri eutsi beharko diote lehiaketa behin betiko ebatzi arte. Zerbitzu berezietan edo senideak zaintzeko borondatezko eszedentzian daudenak, erreserbatutako lanpostura itzultzen badira, ez dira lehiaketan parte hartetik baztertuko. Zerbitzu berezietara edo senideak zaintzeko borondatezko eszedentziara igarotzen diren jarduneko funtzionarioak ere ez dira baztertuko.

Zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo senideak zaintzeko borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioak, lehiaketa ebazteko prozesuan, sektore publikoan zerbitzuak emateagatik borondatezko eszedentziara, interes partikularragatik borondatezko eszedentziara, familia elkartzeko borondatezko eszedentziara edo behin betiko eginkizun-gabetzera pasatzen badira, lehiaketan parte hartetik kanpo geratuko dira.

Lehiaketa honetan ezin izango dute parte hartu:

Eginkizun-gabetze irmoa duten funtzionarioek, eginkizun-gabetzeak irauten duen bitartean.

Norberaren interesarengatik borondatezko eszedentzian dauden langileek, egoera horretan egon beharreko gutxieneko aldia.

Nahitaezko lekualdatzearekin zigortutako langileek, urte bat edo hiru igaro arte, zehapena ezarri zitzaion herri berean destinoa lortzeko, falta astuna edo oso astuna bada, hurrenez hurren.

Berariazko lehiaketa honetan parte hartzeko gutxieneko denborari dagokionez, abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 49.7 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ez da aplikatuko dekretu horren 46.1 artikuluan ezarritako muga.

2.– Betekizun espezifikoak:

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, honako betekizun hauek bete beharko dira:

– Betekizun hauetako bat:

Traumatologiako aditu-prestakuntza edo traumatologiako espezialistaren titulua, Osakidetzaren eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren artean indarrean dagoen prestakuntza-hitzarmenaren arabera.

Psikiatriako adituaren prestakuntza edo Psikiatriako espezialistaren titulua, Osakidetzaren eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren artean indarrean dagoen prestakuntza-hitzarmenaren arabera.

– 4 urteko esperientzia auzitegi mediku gisa.

– Kudeaketako eta etengabeko hobekuntzako tresnei eta sistemei buruzko ezagutzak eta esperientzia.

3. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak hamar egun balioduneko epean aurkeztuko dira, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik edo Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideetan, datu pertsonalak eta egungo lanpostua adieraziko dira. BOEn eta EHAAAn aldi berean argitaratzerik ez badago, EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira epeak.

Eskabideak Justizia Administrazioako Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio, eta honako toki hauetan aurkeztuko dira: erregistro elektronikorokorrean, Gasteizko, Donostiako edo Bilboko EATetako sarrera-erregistroetan, edo Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Erregistro Orokorrean (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo administrazio-prozeduraren indarreko araudian aurreikusitako moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioakoak ez diren funtzionarioek, gainera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

Auzitegi Medikuen Kidegoko karrerako funtzionarioaren izendapena.

Jabetzan betetako azken lanpostuaz jabetzeko eginbidea.

Kidegoan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuen ziurtagiri eguneratua. Egindako zerbitzuak eskabideak aurkezteko epea amaitu arte zenbatuko dira.

Lehiaketa honetan parte hartzeko eskaera bakarra egingo du parte-hartzaile bakoitzak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ezin izango da eskabidea ezeztatu edo aldatu.

Egindako eskaera loteslea izango da eskabideak aurkezteko epea igarotakoan.

4. artikulua.– Faseak eta baremoa.

Berariazko lehiaketa honek zenbait fase ditu:

1.– Lehenengo fasea: merezimendu orokorrak egiaztatu eta baloratzea.

a) Antzinasuna: kidegoan emandako benetako zerbitzuengatik bi puntu emango dira zerbitzuan egindako urte oso bakoitzeko, eta epe laburragoak proportzionalki zenbatuko dira (0,0055555 eguneko). Ondorio horietarako, hilabeteak hogeita hamar egunekoak izango dira, eta urteak 360 egunekoak. Kontzeptu honengatik 60 puntu emango dira gehienez.

b) Euskara jakitea: lanpostua betetzeko eskatzen den baino euskara-ezagutza maila handiagoa egiaztatzen bada, gehienez ere 12 puntu emango dira.

Ezagutza hori behar bezala egiaztatu beharko da aurkeztutako tituluaren eta tituluari dagokion mailaren ziurtagiri ofizialaren edo homologazioaren bidez, zeina eskabideak aurkezteko epean aurkeztu beharko baita, salbu eta Administrazio honi baimena ematen bazaio Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako hizkuntza-normalizazioari buruzko ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen normalizazio-planetatik eratorritako gainerako garapen-xedapenetan ezarritakoaren arabera, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

– Hizkuntza-eskakizunik ez duten lanpostuak:

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea: 6 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea: 8 puntu.

4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea: 12 puntu.

2.– Bigarren fasea: merezimendu espezifikoak baloratzea. Kontzeptu honengatik 43 puntu emango dira gehienez.

a) Erakunde sanitarioetan zerbitzuen kudeaketan eta/edo zuzendaritzan erantzukizuneko postuak betetzeagatik: 0,25 puntu emandako zerbitzu-hilabete bakoitzeko, 5 puntu gehienez.

b) Traumatologia edo psikiatriako eginkizunak dituzten lanpostuetan aritzeagatik, lanpostu-zerrendan ezarritakoaren arabera: 0,25 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 10 puntu.

c) Lanpostuaren eginkizunei dagozkien gaietan edo diziplinetan prestakuntza espezifikoa izateagatik: 0,2 puntu, jasotako 10 prestakuntza-orduko; gehienez ere, 4 puntu.

Atal honetako merezimendu gisa baloratuko dira unibertsitateek, institutu edo eskola ofizialek eta beste erakunde batzuek deitutako eta antolatutako hobekuntza-ikastaroak, baldin eta administrazio publiko batek homologatu baditu. Atal honetan, lanpostuarekin zerikusia duten titulu akademiko ofizialak hartuko dira kontuan, baldin eta Auzitegiko Medikuen Kidegoan sartzeko eskatutakoez bestelakoak badira.

d) Eskatutako lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten argitalpenengatik: 4 puntu gehienez, argitaratutako lan bakoitzeko puntu 1.

e) Memoria: gehienez ere 20 puntu lor daitezke. Bete beharreko lanpostuaren eduki funtzionalari buruzkoa izango da memoria, lanpostuen zerrendan dagoen informazioaren arabera, eta, bereziki,

ezagutza espezifikoen ataleko edukia kontuan hartuta. Memoriak bi zati izan behar ditu: bata, deitutako lanpostuaren eginkizunen azterketa, eta, bestea, antolaketa eta/edo funtzioak hobetzeko azterlan edo proiektu bat. Memoria horrek hamar orrialde izango ditu gehienez, din-A4 tamainakoa, espazio bikoitzera, «Arial» 11 letraz.

3.– Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean baloratuko dira merezimenduak.

5. artikulua.– Eskabideen balorazioa.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren agindu baten bidez izendatutako balorazio-batzordeak ebaluatuko ditu merezimenduak.

Lau kidek osatuko dute, Administrazioa ordezkatzuz, eta horietako bat, gutxienez, Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioa izango da. Administrazioak izendatutako langileen artean, lehendakaria eta idazkaria izendatuko dira. Dagokion eremuan ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalek bi kiderekin hartuko dute parte batzorde horretan.

Deitutako lanpostua atxikita dagoen titulazio bereko edo handiagoko kidegoetakoak izan beharko dute batzordeko langileek.

Batzordearen osieran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko marxoaren 16ko 1/2023 Legean aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Justizia Administrazioko Zuzendaritzak parte-hartzaileen baldintza espezifikoak betetzen diren aztertuko du, eta Batzordeari lagunduko dio merezimenduak baloratzen, parte-hartzaileen espediente pertsonalean dauden datuen eta horiek eskabideak aurkezteko epean aurkezten duten dokumentazioaren arabera.

6. artikulua.– Esleipenak.

Lanpostuak esleitzeko lehentasun-hurrenkera merezimenduak baloratu ondoren lortutako guztizko puntuazio handienak emango du.

Guztizko puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, kidegoan antzinasun handiena duenera joko da, eta, berdinketak jarraitzen badu, eskalafoira.

7. artikulua.– Behin-behineko ebazpena.

1.– Deialdi hau behin-behinean ebatziko du Justizia Administrazioko zuzendariak, eta aldi berean argitaratuko da Justiziako Langileen Atarian eta Justiziako web-orrian (www.justizia.eus).

2.– Behin-behineko ebazpenean adieraziko dira esleipendunaren jatorrizko lanpostua eta herria, alegatutako merezimenduen balorazioan lortutako puntuazioa eta behin-behinean esleitutako lanpostua.

3.– Behin-behineko ebazpenaren aurka alegazioak aurkeztu ahal izango dira, argitaratzen denetik hamar egun balioduneko epean.

4.– Ezarritako epean erreklamaziorik egiten ez bada, ulertuko da ados dagoela eta onartzen dituela jasotako datuak, alegatutako merezimenduen balorazioan lortutako puntuazioa eta behin-behinean esleitutako lanpostua.

5.– Behin-behinean esleitutako destinoak ez du eskubiderik ematen lehiaketaren behin betiko ebazpenari dagokionez.

6.– Hamar eguneko epe horretan uko egin ahal izango zaio lehiaketan parte hartzeari.

8. artikulua.– Behin betiko ebazpena.

1.– Alegazioak ikusita, deialdi hau behin betiko ebatziko da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren agindu baten bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2.– Lehiaketa hau gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 1451/2005 Errege Dekretuaren 51.3 artikulurekin bat etorritz.

3.– Ebazpenean destinoa esleitzen zaion funtzionarioaren jatorrizko lanpostua adierazi beharko da.

4.– Lortutako destino berriaz jabetzeko epea hiru egun baliodunekoa izango da, funtzionarioak herriz aldatu behar ez badu; zortzi egun baliodunekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen beste herri batera aldatu behar badu; eta hogeit hamar egun baliodunekoa, beste autonomia-erkidego batera joan behar badu, honako kasu hauetan izan ezik: Kanarietako Autonomia Erkidegoa, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa, Ceutako Hiri Autonomia eta Melillako Hiri Autonomia; kasu horietan epea hilabetekoa izango da, bai lanpostua jatorrikoa bada, bai destinokoa bada. Lanpostuaz jabetzean zerbitzu aktibora itzultzea lortzen denean, epea hogeit hamar egunekoa izango da.

Lanpostuaz jabetzeko epea kargutik kendu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen. Kargutik kentze hori lehiaketaren behin betiko ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunen barruan egin beharko da. Ebazpenak zerbitzu aktibora itzultzea badakar, argitaratzen denetik aurrera zenbatuko da lanpostuaz jabetzeko epea.

Funtzionarioak baliatzen ari diren oporrak, baimenak edo lizentziak amaitzen direnean hasiko dira zenbatzen lanpostuaz jabetzeko epeak, salbu eta, behar bezala arrazoitutako salbuespeneko zirkunstantziak direla-eta, oporrak edo lizentziak eten edo baliogabetu egiten badira.

Lanpostuaz jabetu ondoren, lanpostuaz jabetzeko epea jarduneko zerbitzutzat hartuko da ondorio guztietarako, zerbitzu aktibora itzultzen den kasuetan izan ezik.

9. artikulua.– Esleitutako destinoen izaera.

1.– Lehiaketa honen ebazpenaren ondoriozko lekualdatzeak borondatezko hartuko dira, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan aurreikusitako ondorioetarako, eta, ondorioz, ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko.

2.– Esleitutako destinoei ezin izango zaie uko egin. Hala ere, berariazko lehiaketa honen bidez lanpostu bat lortu duten funtzionarioek uko egin ahal izango diote, baldin eta lanpostuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen deialdi publiko bidez beste destino bat lortu badute. Kasu horretan, interesdunak deialdia egin duen organoari jakinarazi beharko dio. Jakinarazteko betebeharrak hori bete ezean, funtzionarioek esleitutako lehenengo destinoaz jabetu beharko dute.

10. artikulua.– Zuzenbide osagarria.

Deialdi honetan zehazki aurreikusita ez dagoen guztian, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 43. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatuko da, eta, osagarri gisa, funtzio publikoari buruzko legeria orokorrean xedatutakoa.

11. artikulua.– Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aldi berean argitaratzea lortzen ez bada, epeak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 12a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

2024ko ekainaren 25a, asteartea

ERANSKINA

LANPOSTUEN ZERRENDA

Saila: Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak.

Zentro kudeatzailea: Justizia Administrazioako Zuzendaritza.

Destino-zentroa: Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Gipuzkoako Zuzendariordetza.

Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Lanpostu mota	Herria	Betetzeko modua	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Ezagutza espezifikoak	Dedikazioa	Hizkuntza-eskakizuna	Hizkuntza-bereizketaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berariazko osagarria	Oharrak
220002	1	Auzitegi Klinikako zerbitzuburua	B	Donostia-San Sebastian	BL	A	Auzitegi-medikua	Medikuntzako lizentziaduna	007 008 012	Eklusiboa			4	21.492,12	10.377,84	Guardiak